DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Espediente zk.: 65/2022

DONOSTIAKO UDALAREN KIROL PATRONATUAK ZUZENEAN KUDEATZEN DITUEN INSTALAZIOEN AUTOBABESERAKO PLANAK MANTENTZEKO, BERRIKUSTEKO ETA EGUNERATZEKO ZERBITZUAREN AGIRI TEKNIKOA	**PLIEGO TÉCNICO DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO, REVISIÓN Y ACTUALIZACIÓN DE LOS PLANES DE AUTOPROTECCIÓN DE LAS INSTALACIONES GESTIONADAS DIRECTAMENTE POR EL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE SAN SEBASTIAN**
1.- KONTRATUAREN XEDEA Kontratuaren xedea da Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak kudeatzen dituen eraikinetan diren autobabes planen (aurrerantzean AUP) mantentze-lanak egitea eta plan horiek berrikusi eta eguneratzea. Kontratua sorta hauetan banatzen da: **1 SORTA:** Diren autobabes planen mantentze-zerbitzua, bai eta berrikusi eta eguneratzea ere, pilotaleku estalietan eta 2.000 pertsonatik beherako edukiera duten gainerako instalazioetan: • Altzako udal kiroldegia • Bentaberriko udal kiroldegia • Bidebietako udal kiroldegia • Egiako udal kiroldegia • Etxadiko udal kiroldegia • Lautximenetako udal pilotalekua • Antiguako udal pilotalekua • Estibaus parkeko udal pilotalekua • Loiolako udal pilotalekua • Zubietako udal pilotalekua **2 SORTA:** Diren autobabes planen mantentze-zerbitzua, bai eta berrikusi eta eguneratzea ere, 2.000 pertsonatik gorako edukiera duten instalazio hauetan: • Donostia Arena • Antonio Elorza belodromoa / Anoetako udal miniestadioa • Paco Yoldi udal kiroldegia / Carmelo Balda udal pilotalekua • Jose Antonio Gasca udal kiroldegia / Atano III.a udal pilotalekua • Intxaurrondoko gizarte-etxea	**1.- OBJETO DEL CONTRATO** Es objeto de contrato la realización del mantenimiento de los planes de autoprotección (en adelante PAU) existentes, así como su revisión y actualización en los edificios gestionados por el Patronato Municipal de Deportes de San Sebastian. El contrato se divide en los siguientes lotes: **LOTE 1:** Servicio de mantenimiento de los planes de autoprotección existentes, así como su revisión y actualización, en los frontones cubiertos y resto de instalaciones con aforo inferior a 2.000 personas siguientes: • Polideportivo Municipal de Altza • Polideportivo Municipal de Bentaberri • Polideportivo Municipal de Bidebieta • Polideportivo Municipal de Egia • Polideportivo Municipal de Etxadi • Frontón Municipal Lautximeneta • Frontón Municipal de Antiguo • Frontón Municipal del parque Estibaus • Frontón Municipal de Loiola • Frontón Municipal de Zubieta **LOTE 2:** Servicio de mantenimiento de los planes de autoprotección existentes, así como su revisión y actualización en las instalaciones con aforo superior a 2.000 personas siguientes: • Donostia Arena • Velódromo Antonio Elorza / Miniestadio Municipal de Anoeta • Polideportivo Municipal Paco Yoldi / Frontón Municipal Carmelo Balda • Polideportivo Municipal Jose Antonio Gasca / Frontón Municipal Atano III • Centro cívico de Intxaurrondo

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA	**2.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO**
Kontratuaren xede diren instalazioek autobabeserako plana dute. **I. eranskinean** zerrendatzen dira instalazio bakoitzaren edukiera, AUP egin zen data, erregistro-zenbakia eta lehen egindako eta egitea aurreikusitako berrikuspenen datak. Kontratuaren xede izango dira kontratua mantentzea, berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea ere, betiere indarrean den Autobabeserako Arauan ezarritako baldintzetan (azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua eta otsailaren 12ko 21/2019 Dekretua).	Las instalaciones objeto de contrato disponen de plan de autoprotección. En el **anexo I** se relacionan, para cada una de las instalaciones, el aforo, la fecha de elaboración del PAU, el nº de registro, y las fechas de las revisiones realizadas y previstas. Serán objeto del contrato su mantenimiento, revisión y actualización, si procede, en las condiciones establecidas en la Norma de Autoprotección en vigor (Decreto 277/2010 de 2 de noviembre, y Decreto 21/2019 de 12 de febrero).
2.A.- AUPren eraginkortasuna mantentzea Urtean behin, gutxienez, kontratistak KUPeko langileak prestatu beharko ditu, eta larrialdi-ariketak edo simulazioak egin kontratuaren xede diren instalazio guztietan, 1. loteko frontoietan izan ezik (Lautximeneta, Antiguo, Estibaus, Loiola eta Zubieta) Kontratuaren hasieran, eta kontratua formalizatzen denetik hilabeteko epean, enpresa esleipendunak urteko programa aurkeztu beharko du, prestakuntza eta ariketak edo simulakroak egiteko aurreikusitako datekin. -Prestakuntza Prestakuntza presentziala izango da instalazio bakoitzean. Hilabete lehenago, enpresa kontratistak posta elektronikoz bidaliko dio KUPi prestakuntzaren edukia. Gutxienez, hau izango da: - egungo arrisku-egoera; - izan daitezkeen larrialdiak; - larrialdiei aurre egiteko diren baliabide materialak; - larrialdietan jarduteko giza baliabideak, larrialdi-taldea, organigrama eta funtzioak; - larrialdietan jarduteko prozedurak (larrialdi-mota, zer egin, nori abisatu, nola abisatu, etab.), langile bakoitzaren eginkizunak; - ebakuazio-plana (ebakuazio-ibilbideak, larrialdi-irteerak, bilgunearen kokapena, etab.).	**2.A.- Mantenimiento de la eficiacia del PAU** Con una periodicidad mínima anual la contratista deberá formar al personal asignado al PAU, así como realizar ejercicios o simulacros de emergencias, en todas las instalaciones objeto de contrato, a excepción de los frontones del lote 1 (Lautximeneta, Antiguo, Estibaus, Loiola y Zubieta) Al inicio del contrato, y dentro del plazo de 1 mes desde la fecha de formalización del contrato, la empresa adjudicataria deberá presentar el programa anual con las fechas previstas para la realización de la formación y ejercicios o simulacros. - Formación La formación será presencial en cada una de las instalaciones. Con 1 mes de antelación la empresa contratista enviará por correo electrónico al PMD el contenido de la formación, que será como mínimo el siguiente: - situación actual de riesgo. - posibles emergencias. - medios materiales existentes para hacer frente a las emergencias. - medios humanos para actuar ante emergencias; equipo de emergencia, organigrama y funciones. - procedimientos de actuación en caso de emergencia (tipo de emergencia, qué hacer, a quién avisar, cómo avisar, etc.); funciones de cada trabajador. - el plan de evacuación (recorridos de evacuación, salidas de emergencia, ubicación punto de reunión, etc.).

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Prestakuntza amaitutakoan, kontratistak test bidez ebaluatuko ditu bertaratu diren langileak, eskuratu behar diren ezagutzak eskuratu direla egiaztatzeko.

- Ariketak edo simulakroak

Prestakuntzaren ondoren, ariketa edo simulazioa egingo da, eta, batez ere, instalazioaren barruko jarduketa-prozedurak egingo dira. Ariketa egiten den egunean bertan jakinaraziko zaio Udaltzaingoari, telefonoz, hasiera eta amaiera.

Hilabete lehenago, enpresa esleipendunak posta elektronikoz bidaliko dio simulazio-proposamena KUPi, onar dezan. Bertan, gutxienez, informazio hau jasoko da:

- ariketaren data, ordua eta iraupena;
- simulatu beharreko egoera (sua, ebakuazio partziala edo osoa, etab.);
- simulazioaren hasiera aktibatzeko modua (detektagailua aktibatzea, alarma-sakagailua, langile baten abisua, etab.);
- zer instalazio eta babes-bitarteko erabiliko diren (su-itzalgailuak, etab.);
- simulazioa egiteko aurreikusitako ekintzak; eta instalazioetako langileek egin beharreko jarduerak.

Ariketa egiteko, nahitaezkoa izango da enpresa kontratistako bi pertsona bertan izatea ariketa gainbegiratzeko. Zehazki, haien zereginak hauek izango dira:

- simulazioa prestatzea
- instalazioetako langileek simulazioa egin bitartean egindako ekintzak kontrolatzea
- egindako ekintzak egiaztatzea eta alderatzea, AUPtan jarritako ekintzen aldean
- jardun-denborak, sekuentziak eta antzemandako gabeziak jasotzea
- azken txostena egiteko datuak hartzea
- argazki-erreportajea.

Finalizada la formación el la contratista evaluará mediante test al personal que ha asistido, con el fin de comprobar que los conocimientos han sido adquiridos.

- Ejercicios o simulacros

Tras la formación, se realizará el ejercicio o simulacro, en el que principalmente se ejercitarán los procedimientos de actuación internos de la instalación. El mismo día de su realización se comunicará a la Guardia Municipal telefónicamente su inicio y finalización.

Con 1 mes de antelación la empresa adjudicataria enviará por correo electrónico al PMD la propuesta de simulacro para su aprobación, que contendrá, como mínimo, la siguiente información:

- fecha, hora, y duración del ejercicio.
- situación a simular (incendio, evacuación parcial o total, etc.).
- modo de activación del inicio del simulacro (por activación de detector, pulsador de alarma, aviso por parte de un trabajador, etc.).
- instalaciones involucradas y medios de protección a emplear (extintores, etc.).
- acciones previstas para el desarrollo del simulacro; actuaciones que deban llevarse a cabo por parte del personal de las instalaciones.

Para la realización del ejercicio será obligatoria la presencia de dos personas por parte de la enpresa contratista encargadas de su supervisión. En concreto, serán tareas suyas:

- preparación del simulacro.
- control de las acciones llevadas a cabo por el personal de las instalaciones durante la ejecución del simulacro.
- verificación y cotejo de las acciones ejecutadas con respecto a las dictadas en los PAU.
- anotación de los tiempos de actuación, secuencias, y carencias detectadas.
- toma de datos para la elaboración del informe final.
- reportaje fotográfico.

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Ariketa egin eta gehienez ere hilabeteko epean, enpresa kontratistak KUPi horren txostena emango dio. Txosten horretan, gutxienez, alderdi hauek zehaztuko dira: • sistemen eta ekipoen funtzionamendua • simulazioaren iraupena, guztira • exekuzioan gertatutako gorabeherak • antzemandako desbideratzeak • ekintza zuzentzaile eta/edo hobekuntza proposamena. Ariketa edo simulazio bat egitearen ondorioz ekintza zuzentzaile edo plan aldaketaren batzuk egin beharra jotzen bada, dagokion AUPean jaso beharko dira. Bai prestakuntza, bai simulazio ariketa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, eta horietarako langileentzako den idatzizko dokumentazio guztia ere ele bietan egongo da.		En el plazo máximo de 1 mes desde la realización del ejercicio, la enpresa contratista entregará al PMD informe del mismo recogiendo el resultado en el que se detallen, como mínimo, los siguientes aspectos: • funcionamiento de los sistemas y equipo. • tiempo total de duración del simulacro. • incidentes producidos durante la ejecución. • desviaciones detectadas. • propuesta de acciones correctoras y/omejoras. Si como consecuencia de las conclusiones de la realización de un ejercicio o simulacro se estiman necesarias acciones correctoras o modificaciones del plan, éstas deberán reflejarse en el PAU correspondiente. Tanto la formación como el ejercicio de simulación se realizarán en euskera o en euskera y castellano, y toda la documentación escrita dirigida al personal estará en ambas lenguas.
2.B.- AUP berrikustea eta eguneratzea Enpresa esleipendunak I. eranskineko daten arabera berrikusi beharko du AUPa, hiru urtez behin gutxienez, eta, horrez gain, baita baldintza hauetakoren bat betetzen den guztietan ere: • planaren hasierako idazketan jarrita zen jarduera edo instalazioa aldatzen bada, eta • ariketa edo simulazio bat egitearen ondorioz, plana aldatu behar bada. Kontratistak agiri sinatuan jaso beharko du egindako berrikuspena eta plana aldatu behar den ala ez.		**2.B.- Revisión y actualización del PAU** La empresa adjudicataria deberá revisar el PAU con una perioricidad no superior a tres años, de acuerdo a las fechas del anexo I, además de siempre que se cumpla alguna de las condiciones siguientes: • cuando se produzcan modificaciones de la actividad o la instalación respecto a la redacción inicial. • cuando a consecuencia de las conclusiones de la realización de un ejercicio o simulacro se requiera la modificación del plan. La contratista deberá dejar constancia en documento firmado de la revisión realizada y de la necesidad o no de modificación del plan.

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

AUPren eguneratzeak/aldaketak gehienez ere 2 hilabeteko epean idatziko dira, berrikuspen-datatik, hori zehazten duen simulazio-txostenaren datatik edo KUPek instalazioan egindako aldaketen jakinarazpenetik zenbatzen hasita. Dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du, eta paperezko 2 kopia eta pdf formatuko artxibo bat aurkeztuko ditu. Aldaketa egin aurretik, KUPeko zerbitzu teknikoek suteen aurkako babes-instalazioen plano eguneratuak emango dizkiote enpresa esleipendunari, dwg formatuan.	Las actualizaciones/modificaciones de PAUs se redactarán en el plazo máximo de 2 meses desde la fecha de revisión, fecha del informe de simulacro que lo determine, o comunicación por parte del PMD de modificaciones en la instalación. El documento, del que se presentarán 2 copias en papel y un archivo en formato pdf, deberá estar redactado en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Previamente a su modificación, los servicios técnicos del PMD entregarán a la empresa adjudicataria, en formato dwg planos actualizados de distribución e instalaciones de protección contra incendios.
3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA PLANGINTZA Kontratuak 3 urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik aurrera, eta beste 2 urtez luzatu ahal izango da. Simulakroen ondorioetatik edo instalazioen aldaketetatik eratorritako planen eguneratzeak izan ezik −egin behar diren guztietan egingo baitira eguneratze horiek−, kontratuaren hasierako aldian, gainerako zerbitzuetarako aurreikusitako plangintza honako hau da: **1 SORTA** Lehenengo urtea: • Prestakuntza eta simulakroa 2.000 lagunetik beherako edukiera duten instalazio guztietan, frontoietan izan ezik. • Frontoietako AUPk berrikusi eta eguneratzea; irteeretan eta/edo edukieretan izandako aldaketen ondorioz. • Egiako eta Etxadiko kiroldegietako AUPak berrikustea. Bigarren urtea: • Prestakuntza eta simulakroa 2.000 lagunetik beherako edukiera duten instalazio guztietan, frontoietan izan ezik. • Altza, Bidebieta eta Bentaberriko kiroldegietako AUPak berrikustea. Hirugarren urtea: • Prestakuntza eta simulakroa 2.000 lagunetik beherako edukiera duten instalazio guztietan, frontoietan izan ezik.	**3. DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLANIFICACIÓN** El plazo de duración del contrato es de 3 años desde la formalización del contrato, prorrogable por 1 periodo de 2 años más. A excepción de las actualizaciones de PAUs derivadas de las conclusiones de los simulacros, o de las modificaciones de las instalaciones, que se realizarán siempre que sean necesarias, la planificación estimada para el resto de servicios, durante el periodo inicial del contrato, es la siguiente: **LOTE 1** Primer año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo inferior a 2.000, excepto en los frontones. • Revisión y actualización de los PAUs de los frontones, que deben actualizarse por modificaciones en las salidas y/o aforos. • Revisión de los PAUs de los polideportivos de Egia y de Etxadi. Segundo año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo inferior a 2.000, excepto en los frontones. • Revisión de los PAUs de los polideportivos de Altza, Bidebieta y Bentaberri, Tercer año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo inferior a 2.000, excepto en los frontones.

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

2 SORTA	LOTE 2
Lehenengo urtea: • 2.000 lagunetik gorako edukiera duten instalazio guztietan prestakuntza eta simulazioa egitea. • Donostia Arena, A. ELorza belodromoa – Miniestadioa, eta J.A. Gasca kiroldegia – Atano III pilotalekua instalazioetako AUPak berrikustea. Bigarren urtea: • Prestakuntza eta simulakroa 2.000 lagunetik gorako edukiera duten instalazio guztietan. Hirugarren urtea: • Prestakuntza eta simulakroa 2.000 lagunetik gorako edukiera duten instalazio guztietan. • P.Yoldi kiroldegia – K.Balda pilotalekua, eta Intxaurrondoko Zentro Zibikoa instalazioetako AUPak berrikustea.	Primer año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo superior a 2.000. • Revisión de los PAUs de las instalaciones Donostia Arena, Velódromo A. Elorza – Miniestadio, y polideportivo J.A. Gasca – frontón Atano III. Segundo año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo superior a 2.000. Tercer año: • Formación y simulacro en todas las instalaciones con aforo superior a 2.000. • Revisión de los PAUs de las instalaciones polideportivo P.Yoldi – Frontón C.Balda, y Centro Cívico Intxaurrondo.
4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK Enpresa esleipendunak gutxieneko egitura administratibo eta tekniko bat izan behar du kontratu honen funtzionamendu egokia bermatzeko. Zehazki, autobabes planak egiten, ezartzen eta mantentzen gutxienez bost urteko esperientzia duen koordinatzaile bat atxiki behar dio kontratuari. Pertsona hori izango da enpresaren zuzendaritzaren ordezkaria, bai eta KUPekin izango den solaskide nagusia ere. Pertsona horrek Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren egiaztagiria izan beharko du, autobabes planak egiteko eskumena duen teknikari izatearena, 2016ko irailaren 5eko Aginduarekin bat etorriz. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko du, besteak beste, kontratuaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak zuzentzeko, planifikatzeko eta koordinatzeko ardura, kontratuaren baldintzen arabera bete daitezen.	**4. MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES** La empresa adjudicataria deberá disponer de una estructura administrativa y técnica mínima para garantizar el buen funcionamiento del presente contrato. En concreto, deberá adscribir al contrato como mínimo a una persona cooordinadora del servicio con una experiencia mínima de cinco años en la prestación de servicios de elaboración de planes de autoprotección, implantación y mantenimiento, que representará a su dirección y que será el interlocutor principal con el PMD. Dicha persona deberá estar acreditada por el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco como personal técnico competente para la elaboración de planes de autoprotección, de conformidad con la Orden de 5 de septiembre de 2016. La empresa adjudicataria asumirá, entre otras, la responsabilidad de dirigir, planificar y coordinar los recursos humanos y materiales necesarios para la prestación del servicio objeto del contrato, de manera que se cumplan en los términos del mismo.

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

5. ORDAINTZEKO MODUA ETA BERMEA Egindako lanak ordaintzeko, enpresa esleipendunak egindako lanen egiaztagiri proposamena egin beharko du, eta KUPeko teknikariek ziurtagiri horri oniritzia eman beharko diote. Bi izapide horiek bete ondoren, enpresa esleipendunak dagokion faktura elektronikoa aurkeztuko du. Prezio horri, hala badagokio, agiri teknikoan adierazitako zigorren zenbatekoa deskontatuko zaio, aldez aurretik KUPen dagokion organoak zigorra onartzeko ebazpena emanda, baldin eta enpresa esleipendunak agiri teknikoan adierazitako arau-hausteren bat egin badu.	**5. FORMA DE PAGO Y GARANTÍA** El pago de los trabajos ejecutados requerirá que la empresa adjudicataria emita una propuesta de certificación de las tareas realizadas y el visto bueno del personal técnico del PMD a dicha certificación. Cumplidos ambos trámites, la empresa adjudicataria presentará la factura electrónica correspondiente. A este precio se le descontará, en su caso, el importe de las penalidades señaladas en el Pliego Técnico, previa resolución aprobatoria de la penalidad por parte del órgano correspondiente del PMD como consecuencia de la comisión por parte de la empresa adjudicataria de las infracciones señaladas en el Pliego Técnico.
6. EZ-BETETZEAK Baldintza teknikoen agiri honetan, administrazio klausulen agirian, eranskinetan eta enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren gainerako dokumentuetan adierazitako betebeharrak betetzen ez badira, KUPek ebazpen bat eman ahal izango du, hurrengo atalean ezarritako zigorrak aplikatuz. Errepikapena dagoela ulertuko da jokabidea edo ez-egitea hiru aldiz gertatzen denean, gertatzen den aldia edozein izanda ere. 6.1.- Hauek hartuko dira ez-betetze arintzat: - Instalazio bakoitzeko, hilabete 1etik bi hilabete arteko atzerapena, prestakuntza, simulakroa eta txostena egiteko urteko programan ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzeko, hilabete 1 eta 2 hilabete arteko atzerapena AUPen berrikuspenetan, agirian ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzeko hilabete 1 eta 2 hilabete arteko atzerapena AUPen eguneratzeetan, agirian ezarritako epetik aurrera. 6.2.- Hauek hartuko dira ez-betetze larritzat:	**6. INCUMPLIMIENTOS** Ante el incumplimiento de las obligaciones señaladas en este Pliego de Prescripciones Técnicas, en el Pliego de Cláusulas Administrativas, en los Anexos, y en los demás documentos de la oferta presentada por la empresa adjudicataria que rigen la prestación de este servicio, el PMD podrá dictar una resolución aplicando las penalidades que se establecen en el siguiente apartado. Se considerará que hay reiteración cuando el comportamiento u omisión, se produzca por tres veces, sea cual sea el periodo en el que se produzca. 6.1.- Se considerarán incumplimientos leves los siguientes: - Retraso de 1 a 2 meses, por cada una de las instalaciones, desde el plazo fijado en el programa anual para la realización de la formación, simulacro e informe. - Retraso de 1 a 2 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de revisiones de PAUs, desde el plazo establecido en el pliego. - Retraso de 1 a 2 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de las actualizaciones de los PAUs, desde el plazo establecido en el pliego. 6.2.- Se considerarán incumplimientos graves los siguientes:

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

- Ez-betetze arinak behin eta berriz egitea. - Instalazio bakoitzean 2 hilabete eta 4 hilabete arteko atzerapena izatea, prestakuntza, simulakroa eta txostena egiteko, urteko programan ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzean 2 hilabetetik 4 hilabetera bitartean atzeratzea izatea AUPen berrikuspenak egiten, agirian ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzean 2 hilabetetik 4 hilabetera bitartean atzeratzea AUPen eguneratzeak egiten, agirian ezarritako epetik aurrera. 6.3.- Hauek hartuko dira ez-betetze oso larritzat: - Txostenak, ziurtagiriak, fakturak edo gainerako dokumentuak faltsuak izatea, haien garrantzia ekonomikoa edozein izanda ere. - Ez-betetze larriak behin eta berriz egitea. - 4 hilabetetik gorako atzerapena instalazio bakoitzeko, prestakuntza, simulakroa eta txostena egiteko urteko programan ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzean 4 hilabetetik gorako atzerapena AUPen berrikuspenak egitean, agirian ezarritako epetik aurrera. - Instalazio bakoitzean 4 hilabetetik gorako atzerapena izatea AUPen eguneratzeak egiten, agirian ezarritako epetik aurrera.		- La reiterada comisión de incumplimientos leves. - Retraso de 2 a 4 meses, por cada una de las instalaciones, desde el plazo fijado en el programa anual para la realización de la formación, simulacro e informe. - Retraso de 2 a 4 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de revisiones de PAUs, desde el plazo establecido en el pliego. - Retraso de 2 a 4 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de las actualizaciones de los PAUs, desde el plazo establecido en el pliego. 6.3.- Se considerarán incumplimientos muy graves los siguientes: - La falsedad en los informes, certificados, facturas, o resto de documentos, sea cual sea su trascendencia económica. - La reiterada comisión de incumplimientos graves. - Retraso superior a 4 meses, por cada una de las instalaciones, desde el plazo fijado en el programa anual para la realización de la formación, simulacro e informe. - Retraso superior a 4 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de revisiones de PAUs, desde el plazo establecido en el pliego. - Retraso superior a 4 meses, por cada una de las instalaciones, en la realización de las actualizaciones de los PAUs, desde el plazo establecido en el pliego.
7. ZIGORRAK Zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz ezarriko dira, kontratuaren arduradunak proposatuta. Zigorrak ezartzeko erabakia berehala betearaziko da, eta haren zenbateko ekonomikoa esleipendunari ordaindu beharreko fakturetatik edo kontratuaren bermetik kenduta kitatuko da.		**7. PENALIDADES** Las penalidades se impondrán por acuerdo del órgano de contratación, a propuesta del responsable del contrato. El acuerdo de imposición de penalidades será inmediatamente ejecutivo y su importe económico se hará efectivo mediante deducción de las facturas que deban abonarse al adjudicatario, o sobre la garantía del contrato.

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Ez-betetze arinak 100,00 eurorekin zigortuko dira. Ez-betetze larriak 250,00 eurorekin zigortuko dira. Ez-betetze oso larriak 600,00 eurorekin zigortuko dira.		Los incumplimientos leves se penalizarán con 100,00 € cada uno. Los incumplimientos graves se penalizarán con 250,00 € cada uno. Los incumplimientos muy graves se penalizarán con 600,00 € cada uno.

Donostian, sinaduraren egunean,

Ikuska Ormazabal Otaño
Kirol-instalazioetako teknikaria
Técnica de instalaciones deportivas

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

I ERANSKINA - ANEXO I

	I ERANSKINA – ANEXO I	HELBIDEA / DIRECCIÓN	EDUKIERA / AFORO	AUP-ren DATA / FECHA ELABORACIÓN PAU	AUP-ren ERREGISTRO ZENBAKIA / Nº REGISTRO PAU	AZKEN BERRIKUSPENAREN DATA / FECHA ÚLTIMA REVISIÓN	HURRENGO BERRIKUPENEN DATA AURREIKUSIAK / FECHAS PREVISTAS SIGUIENTES REVISIONES	FORMAKUNTZA ETA SIMULAKROA URTERO / FORMACIÓN Y SIMULACRO ANUAL
1 SORTA – LOTE 1	ALTZAKO UDAL KIROLDEGIA / POLIDEPORTIVO MUNICIPAL DE ALTZA	Casares paselakua, 153	1.985	2022ko martxoa / marzo de 2022	10710	13/04/2022	2025 / 2028	BAI / SI
	BENTABERRIKO UDAL KIROLDEGIA / POLIDEPORTIVO MUNICIPAL DE BENTABERRI	Bertsolari Xalbador, 2	1.646	2022ko iraila / septiembre de 2022	6391	2022ko iraila / septiembre de 2022	2025 / 2028	BAI / SI
	BIDEBIETAKO UDAL KIROLDEGIA / POLIDEPORTIVO MUNICIPAL DE BIDEBIETA	Serapio Mugika pasealekua, 1	1.246	2022ko abuztua / agosto de 2022	6378	2022ko abuztua / agosto de 2022	2025 / 2028	BAI / SI
	EGIAKO UDAL KIROLDEGIA / POLIDEPORTIVO MUNCIPAL DE EGIA	Martin Santos, 1	1.222	2015eko iraila / septiembre de 2015	6384	27/05/2021	2024 / 2027	BAI / SI
	ETXADIKO UDAL KIROLDEGIA / POLIDEPORTIVO MUNCIPAL DE ETXADI	Borroto, 32	669	2016ko apirila / abril de 2016	6398	27/05/2021	2024 / 2027	BAI / SI
	LAUTXIMENETA UDAL PILOTALEKUA / FRONTÓN MUNICIPAL LAUTXIMENETA	K. Santamaria plaza, 7	622	2015eko uztaila / julio de 2015	erregistratu gabe / no registrado	berrikusi gabe / no revisado	2023 / 2026	EZ / NO
	ANTIGUAKO UDAL PILOTALEKUA / FRONTÓN MUNICIPAL DEL ANTIGUO	Alfonso XII plaza	548	2015eko ekaina / junio de 2015	6423	15/06/2015	2023 / 2026	EZ / NO
	ESTIBAUS PARKEKO UDAL PILOTALEKUA / FRONTÓN MUNICIPAL DEL PARQUE ESTIBAUS	Estibaus parkea	429	2015eko ekaina / junio de 2015	6401	15/06/2015	2023 / 2026	EZ / NO
	LOIOLAKO UDAL PILOTALEKUA / FRONTÓN MUNICIPAL DE LOIOLA	Aralar Mendia, 17	400	2015eko ekaina / junio de 2015	6399	15/06/2015	2023 / 2026	EZ / NO
	ZUBIETAKO UDAL PILOTALEKUA / FRONTÓN MUNICIPAL DE ZUBIETA	Herriko plaza, 4	424	2015eko ekaina / junio de 2015	erregistratu gabe / no registrado	berrikusi gabe / no revisado	2023 / 2026	EZ / NO
2 SORTA – LOTE 2	DONOSTIA ARENA	Miramon pasealekua, 2	15.132	2016ko ekaina / junio de 2016	6812	27/05/2021	2024 / 2027	BAI / SI
	A. ELORZA BELODROMOA – MINIESTADIOA / VELÓDROMO A. ELORZA – MINIESTADIO	Anoeta pasealekua, 3-14	9.711	2021eko urtarrila /enero de 2021	6813	12/01/2021	2024 / 2027	BAI / SI
	P.YOLDI KIROLDEGIA – K.BALDA PILOTALEKUA / POLIDEPORTIVO P.YOLDI – FRONTÓN C.BALDA	Anoeta pasealekua,16-18-20	4.558	2023ko urtarrila / enero de 2023	6761	2023ko urtarrila / enero de 2023	2026 / 2029	BAI / SI
	J.A. GASCA KIROLDEGIA – ATANO III PILOTALEKUA / POLIDEPORTIVO J.A. GASCA – FRONTÓN ATANO III	Anoeta pasealekua, 6-8	4.348	2016ko iraila / septiembre de 2016	6783	27/05/2021	2024 / 2027	BAI / SI
	INTXAURRONDOKO ZENTRO ZIBIKOA / CENTRO CÍVICO DE INTXAURRONDO	Felix Gabilondo, 1	2.263	2023ko urtarrila / enero de 2023	6782	2023ko urtarrila / enero de 2023	2026 / 2029	BAI / SI

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Ikuska Ormazabal Otaño (02/06/2023 14:19 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 356aef30-7e8e-456c-a309-e5ea63541cc6